



ENPRESEN konfiantza

2018KO 3. HIRUHILEKORAKO
IGURIKIMENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa


2018KO 3. HIRUHILEKORAKO IGURIKIMENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Industria Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2018ko hirugarren hiruhilekorako** dituzten igurikimenen berri izateko. Bada, ondorio interesgarriak eman ditu, aurreko hiruhilekotik beherakada bat sumatu baita. Jarraian, ondorio nagusien laburpen txikia eskainiko dizuegu.

Ingurune ekonomikoari buruzko enpresen igurikimenei dagokienez, % 58,4k uste du egoerak bere horretan jarraituko duela, eta % 28,2k hobetu egingo dela. Ikus daitekeenez, ikuspegi baikorra da nagusi, eta, geroago ikusiko dugunez, aztertutako gainerako aldagai guztietan ere islatzen da




1 FAKTURAZIOA

Enpresek fakturazioari buruz dituzten aurreikuspenak aldekoak dira, **2018ko hirugarren hiruhilekoari** begira. Hala, % 49ren iritziz, fakturazioan ez da aldaketarik egongo, eta % 35,6ren ustez, hobera egingo du. Beraz, fakturazio txarragoa espero duten enpresak % 15,4 dira.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, **2018ko hirugarren hiruhilekoan** jarduerak bere horretan segituko duela uste dutenen kopurua % 59,5koa da, eta egoerak hobera egingo duela uste dutenena % 26,8koa. Laginaren % 13,7k baino ez du uste jarduerak okerrera egingo duela.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, honako zalantza hau sortu zaigu: fakturazioa eta jarduera hobetuko dela uste dutenek gehiago saltzea ala garestiago saltzea espero dute? Emaitzek diote eskabideen bolumena hobetzeko igurikimen argia dagoela. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 53,3k uste du bolumenean ez dela aldaketarik egongo, eta % 32k hobera egingo duela. Enpresen % 14,7k baizik ez du uste eskabideen bolumenak behera egingo duela.




4 | PREZIOAK

Prezioei dagokienez, egonkor jarraituko dutela uste dute gehienek; izan ere, inkestari erantzun diotenen % 78,8k uste du prezioek bere horretan jarraituko dutela **hirugarren hiruhilekoan**. Gainerako enpresetatik, % 12,7k uste du prezioak handiagoak izango direla, eta gainerako % 8,5ek, berriz, txikiagoak izango direla.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen errentagarritasunari buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 70,6ren arabera ez da aldaketarik egongo; enpresen % 15,7k uste du handiagoa izango dela eta % 13,7k errendimendu txikiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte azterturiko datuen arabera, egoera nahiko positiboa da, eta, ondoren ikusiko dugunez, badirudi enpresek ahalmen produktiboa eta, ondorioz, langileen kopurua handitzeko asmoa dutela.

Inbertsio-bolumenari dagokionez, enpresen % 67,3k uste du eutsi egingo diotela **2018ko hirugarren hiruhilekoan**. % 22,2k, berriz, inbertsio-bolumenak gora egitea espero du. Horrenbestez, gainerako % 10,5ak uste du behera egingo duela.



7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 71,9k erantzun du enpleguan ez dutela aldaketarik espero; % 21,2k langile taldea handitzeko itxaropena du eta % 6,9k guztiz kontrakoa (plantilla murriztu egingo duela).




2018KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu, **56,6ko** konfiantza-indizea lortzen dugu. Horrek esan nahi du aurreko hiruhilekoko datuarekin alderatuta beherakada bat egon dela, orduko hartan **61,7ko** balioa lortu baitzen. Interpretazioa hauxe da: enpresek ikuspegi ezkorragoa dute ekonomiaren bilakaerari buruz, **2018ko hirugarren hiruhilekoari** begira. Gainera, indizearen balioa 50etik gora dagoenez, hedatze-eremuan gaude, beste eremu geografiko interesgarri batzuetan lortutako datuekin bat. Espainian, esaterako, 55,4ko datua lortu zen urtarrilean, eta Eurogunean 54,1koa otsailean.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan izandako emaitzak aurkeztuko ditugu, aurretik azaldutako indizearekin zerikusirik ez dutenak. Azken urteko esportazioen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 53,9k uste du bere horretan jarraitu duela eta % 32,9k hobera egin duela. % 13,2ren iritzian, kanpoko salmentek txarrera egin dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean berrikuntzari edo I+Gko ekimenei bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 75 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 7,7k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 | BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 76,8rentzat, bezeroei kobratzeko epean ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta enpresen % 16,4ren esanetan, epea luzatu egin da . Hala, enpresen % 6,7k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaren % 71,1ek erantzun du bankuen finantzaketa eskuratzeko aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 21,1ek dio hobetu egin dela, eta % 7,7k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2018AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

12 ENPRESEN IGURIKIMENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken bi hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



13 | Industria-sektorearen portaera

Ondorengo grafikoan, Industriaren Balio Erantsi Gordinaren (BEG) portaeraren aurreikuspena ikus daiteke 2018rako, urtetik urterako balioetan. Labur esanda, sektorearen BEGa % 3,1ekoa izango dela aurreikusten da.

Industria-sektorearen balio erantsi gordina: urte arteko bilakaeraren aurreikuspena
2018rako



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.
